Gipuzkoako Foru Aldundia
Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

# FORU AGINDUA / ORDEN FORAL

2010eko azaroaren 18ko, 2012ko azaroaren 13ko eta 2017ko otsailaren 3ko foru aginduen bidez (2010eko azaroaren 23ko, 2012ko azaroaren 20ko eta 2017ko otsailaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak, 224, 221 eta 37 zk.) onartu ziren, bidaiarien edo salgaien errepideko garraioa egiten duten zenbait ibilgailuren gidarien hasierako trebakuntza egiaztatzen duen gaitasun profesionalaren ziurtagiria lortzeko Gipuzkoako Lurralde Historikoko proben oinarriak.

Lehen oinarriaren 1. paragrafoan hau ezartzen da: «urtero sei deialdi egingo dira, hilabete hauetan, bigarren hamabostaldian: urtarrila, martxoa, maiatza, uztaila, iraila eta azaroa».

Horregatik, orain 2022. urteari dagozkion deialdietarako eskaerak aurkezteko epea argitaratu behar da. Azterketen lekua eta ordua www.cap.gipuzkoa.eus web orrian argitaratuko dira, aipatutako oinarri arautzailearen 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera.

Ondorioz, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatuak, bere eskumenak erabilita

***EBAZTEN DU***

**Lehenengo:** 2022eko deialdiak onartzea, bide publikoetan ibilgailuak gidatzeko beharrezkoa den hasierako trebakuntza egiaztatzen duen gaitasun profesionalaren ziurtagiria lortzeko probak egiteko, Gidarien Erregelamendu Orokorrean jasota dauden C1, C1+E, C, C+E, D1, D1+E, D edo D+E kategorietako gidabaimenak izatea nahitaezkoa duten gidarientzat, hain zuzen D1+E, D edo D+E kategorietako gidabaimenak izatea nahitaezkoa duten

Mediante Ordenes Forales de fechas 18 de noviembre de 2010, 13 de noviembre de 2012 y 3 de febrero de 2017 (Boletines Oficiales de Gipuzkoa número 224 de 23 de noviembre de 2010, 221 de 20 de noviembre de 2012 y 37 de 22 de febrero de 2017), se regularon las bases de las pruebas para la obtención del Certificado de Aptitud Profesional acreditativo de la cualificación inicial de los conductores de determinados vehículos destinados al transporte de mercancías o de viajeros por carretera, a celebrar en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

En el apartado 1 de la base primera se establece que «anualmente se realizarán seis convocatorias que se desarrollarán en la segunda quincena de los meses de enero, marzo, mayo, julio, setiembre y noviembre».

Por ello, procede ahora publicar el plazo de presentación de las solicitudes a las convocatorias correspondientes al año 2022. El lugar y la hora de los exámenes será objeto de publicación en la página web www.cap.gipuzkoa.eus, conforme a lo dispuesto en el apartado 2 de dicha base reguladora.

En consecuencia, en el ejercicio de sus competencias, esta Diputada Foral de Movilidad y Ordenación del Territorio,

***R E S U E L V E***

**Primero:** Aprobar las convocatorias del año 2022 para la realización de las pruebas para la obtención del certificado de aptitud profesional acreditativo de la cualificación inicial, necesario para la conducción por vías públicas de vehículos para los que resulte obligatorio estar en posesión de permisos de conducción de las categorías C1, C1+E, C, C+E, D1, D1+E, D o D+E, definidas en el Reglamento General de Conductores.

FAEBbc68edd4-102c-4598-a4f3-04c9b6c59f7d

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

gidarientzat, hain zuzen

**Bigarren:** 2022an egingo diren proben egutegia**.**

1.- 2022. urtean sei proba egingo dira gaitasun profesionalaren ziurtagiria lortzeko, egutegi honen arabera:

-- Lehenengo deialdia: 2022ko urtarrilaren 28a.

--- Bigarren deialdia: 2022ko martxoaren 25a.

-- Hirugarren deialdia: 2022ko maiatzaren 27a.

--- Laugarren deialdia: 2022ko uztailaren 22a.

--- Bosgarren deialdia: 2022ko irailaren 30a.

--- Seigarren deialdia: 2022ko azaroaren 25a.

2.- 2022ko probetan parte hartzeko eskaerak egiteko epeak hauek dira:

**Segundo:** Calendario de pruebas a celebrar durante el año 2022.

1.- Durante el año 2022 se realizarán seis pruebas para la obtención del certificado de aptitud profesional, que tendrán lugar de acuerdo al siguiente calendario:

--- Primera convocatoria: 28 de enero de 2022.

— Segunda convocatoria: 25 de marzo de 2022.

— Tercera convocatoria: 27 de mayo de 2022.

— Cuarta convocatoria: 22 de julio de 2022.

— Quinta convocatoria: 30 de setiembre de 2022.

— Sexta convocatoria: 25 de noviembre de 2022.

2.- El plazo de presentación de solicitudes para las pruebas a realizar durante el año 2022 será el siguiente:

| ***Deialdia*** | ***Eskaera-orriak aurkezteko epea*** | ***Kategoriak*** |
|---|---|---|
| ***Convocatoria*** | ***Plazo de presentación de instancias*** | ***Categorías*** |
| | | |
| **Urtarrila / Enero** | 2021eko abenduaren 20etik 2022ko urtarrilaren 7ra<br>Del 20 de diciembre de 2021 al 7 de enero de 2022 | Bidaiariak eta salgaiak<br>Viajeros y Mercancías |
| | | |
| **Martxoa / Marzo** | 2022ko otsailaren 16tik martxoaren 4ra<br>Del 16 de febrero al 4 de marzo de 2022 | Bidaiariak eta salgaiak<br>Viajeros y Mercancías |
| | | |
| **Maiatza / Mayo** | 2022ko apirilaren 13tik maiatzaren 6ra<br>Del 13 de abril al 6 de mayo de 2022 | Bidaiariak eta salgaiak<br>Viajeros y Mercancías |
| | | |
| **Uztaila / Julio** | 2022ko ekainaren 6tik uztailaren 1era<br>Del 6 de junio al 1 de julio de 2022 | Bidaiariak eta salgaiak<br>Viajeros y Mercancías |
| | | |
| **Iraila / Setiembre** | 2022ko abuztuaren16tik irailaren 9ra<br>Del 16 de agosto al 9 de setiembre de 2022 | Bidaiariak eta salgaiak<br>Viajeros y Mercancías |
| | | |
| **Azaroa / Noviembre** | 2022ko urriaren 13tik azaroaren 4ra<br>Del 13 de octubre al 4 de noviembre de 2022 | Bidaiariak eta salgaiak<br>Viajeros y Mercancías |

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Foru agindu honen aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer contra la misma RECURSO



FAEBbc68edd4-102c-4598-a4f3-04c9b6c59f7d

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio

ERREKURTSOA aurkez dezakete, interesatuek, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik hasita.

Hala ere, aukera dute foru diputatuari horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo presuntziozko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas interesadas particulares, con carácter previo, podrán interponer RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICIÓN ante esta diputada foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

FORU DIPUTATUA /LA DIPUTADA FORAL

Rafaela Romero Pozo

FAEBbc68edd4-102c-4598-a4f3-04c9b6c59f7d

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.

## Sinadura laburpena

## Resumen de firmas

FA-ML-2021-0595

Izenburua | Título:

2022ko GGA deialdiak

Convocatoria CAP 2022

Ondoren dokumentu honetan erreferentzia egiten den foru agindu originalaren sinadura datuak erakusten dira.
A continuación se muestran los datos de la firma de la orden foral original a la que hace referencia este documento.

**Sinatzailea | Firmante:** Rafaela Romero Pozo

**Data | Fecha:** 2021eko irailaren 30ean

Dokumentu hau originalaren kopia elektroniko autentikoa da, bertan aipatzen den organoak jasotako datan sinatutakoa.
El presente documento es copia electrónica auténtica del documento original firmado por el órgano y en la fecha que se señalan en el mismo.